

Cárcar muinotik: "Sindikalismoa aldapa gora"



Iván Giménez

*Manu Robles-Arangiz Institutua
2012ko ekaina*

Ega ibai ertzean muino bat. Muinoaren magalean Cárcar herria, eta gainean eliza. Eta are gorago zaharren egoitza eraiki zuten. Izerdia bota behar da bertara iristeko, baina esfortzuak merezi du: paisaia hobe ikusten da, ez geografikoa soilik, baita laborala ere. "Urrats dezente eman ditugu aldapa gora, baina egiteko asko dago oraindik", onartzen dute Virgen de Gracia zentroko langileek, orain bi urte ordezkaritza sindikala ELAri eman zioten berek. Erribera Garaian barreatuta dauden zahar-egoitzen artxipelagoan beste irla bat dira. Haietako askotan lanbaldintza propioak negoziatzea lortu da ELAren eskutik, Nafarroako sek-

toreko edukiak hobetuz, eta estatu-koak zer esanik ez. Halako adibideak ditugu Martzillan, Andosillan (biotan ELAko afiliazio masiboarekin), Funes, Sesma, Lodosa, Mendabian...

Beraz, Cárcarreko kasua ez da salbuespena, baina bai oso adierazgarria lan-baldintzak hobetzeko eskakizunak aurrera eramateko moduan, batik bat guztia kontra daukagun erresistentzia garaiotan. Enpresa txiki eta ertainetan itun edo hitzarmen bat lortzea ia ezinezko delako irudipen zabalaren kontra, Cárcarreko hamabost bat langilek egoera iraultzea lortu dute, antolakuntza propioa landuz, eta beren

ordezkaritza urruneko negoziazio mahaietan uzteari uko eginez, geroz eta emaitza kaskarragoak ematen dituztela sinetsita, eta epe laburrean ezerezean geratzeko arriskua dutenak. Hortxe, gertutasunaren eta lokalaren indarrean dago erresistentziarako gakoa. Langile gehienak Carcarrekoak dira (bat Alcandre

herrikoa da, Errioxa), herriko bizitza sozial eta politikoa konprometituak, beraz, inizatiba sindikala hartzeko baldintza ezin hobekak dituzte. Horretaz mesede aterako dute, halaber, zentroan dauden 44 egoiliarak.

“Garai batean Ostalaritza sektoreko hitzarmenaren pean zegoen egoitza hau, denborarekin

Erresidentzietakora pasa zen”, oroitzen du Mamen Urbiola ELAko ordezkariak, “sektore hartan Nafarroako hitzarmenik ere ez zegoen garaian”.

Momentu jakin batean negoziazio mahai propioa osatzea erabaki zuten, soldata igoerak eta lanaldi murrizketak lortuz, eta goragoko hitzarmen edukia hobetuz. Eboluzio motel eta neketsu hau, ordea,

eten egin zen 2010ean. Ordura arte UGTk ordezkutzen bazituen, asanblada batean aldatzea erabaki eta ELA aukeratu zuten. “Oso utziak sentitzen ginen, nahiz eta hemen UGTko zenbait afiliatu egon”, zehazten dute Ana Esther Pardo eta Joaquina Chalezquer-ek, besteak beste.

Hortxe, gertutasunaren eta lokalaren indarrean dago erresistentziaren gakoa

Argi geratu zen egoitza kudeatzen duen udal patronatuak gogor eutsiko ziola bereari, 2010etik lan-baldintzen hobekuntzarik gabe zeramatzen bi urteek erakusten zuten moduan. Egoera hartan, 2011ko maiatzean, udal hauteskundeak etorri eta udaletxean aldaketa politikoa ekarri zuten: Agrupación Independiente de Cárcar taldeak UPN ordezkatu zuen alkaltetzan. Haatik, ELAk aurkeztutako plataformak ez aurrera ez atzera jarraitzen zuten, patronatuaren osaketa atzeratzen zihoalako eta burokraziak prozesua luzatu besterik ez zuen egiten: negoziaketak ez ziren abiatzen. “Estatu hitzarmenaren pean egoteak zekartzan kalteak dastatuak genituen -oroitzen du Mamen Urbiolak-, enpresa saiatu baitzen langile berriek bertako taulen arabera kobra



zezaten, gure hitzarmen propioaren igoe-
rak bazterrean utziz:
hori betirako soldata
eskala bikoitza ezart-
zea zen, berau des-
agertzeko aukera
bakarra beraiekin ber-
dindu arte gure solda-
tak izoztea izanik.
Hortik ezin genuela
pasa ohartu eta atzera
bota genuen”.

Negoiazio berrira-
ko, lantalde osoaren
asanblada irekiek anto-
latu zituzten, helburu
zirenak eskaera kolekti-
bo partekatu eta ados-
tuetan bihurtuz. Hala,

patronatuari negoziazioa luzatzeko
zirrikitu txikiena ere itxi zioten.
Soldata eskala bikoitza ezartzeko
saiakeraren porrotaren ondoren
zuzendaritzak bazekien lantaldeak
ez zuela erraz etsiko. Azkenean,
ELAko ordezkariak enpresako itun
berria sinatua zuen 2012ko otsaila-
ren 16an, lan erreformaren zehazta-
sunak oraindik argitu gabeak zirela.
Edozelan ere, Nafarroako KPltik
gorako %1eko soldata igoera lortu
zuten eta lanaldiaren 14 orduko
murrizketak hitzarmeneko urte
bakoitzeko (2012-2013), urtean
1.710 orduko lanaldira iristeko.

Hortaz gain, lantal-
deak jornada
murrizketak eskurat-
zeko erraztasun
handiagoa eskuratu
zuen, baimen eta
lizentzietan errazta-
sun gehiago, eta
baja hartzen den
lehen egunetik



**“daukagun
egitekorik
premiazkoena
enpresa ituna
hitzarmen
bihurtzea da”**

%100 kobratzea lan istripuen kasuan
(hirugarren egunetik aurrera ohizko
gaixotasunetan).

Horiek guztiak sektoreko beste hit-
zarmenekiko hobekuntzak dira, esta-
tukoa zein Nafarroakoa izan. “Azken
honek indar gutxi du egun, eta etor-
kizun beltza”, sentitzen dute
Carcarreko langileek. “Lan-errefor-
ma aztertuz konturatu gara, dauka-
gun egitekorik premiazkoena enpre-
sa ituna hitzarmen bihurtzea dela,
babes legal handiagoa emango
digulako. “Horretan eman behar
ditugu orain orduak”, azpimarratzen
du Mamen Urbiolak. Eta horretarako

bidea “mundu guztia
afiliatzea da; ELAK
babestu eta aholkat-
zen badigu, ezin dugu
albo batean utzi lantal-
dea afiliatu eta sindika-
lizatzearen lana.
Prestatu egin behar
gara.” Eta beraiek
diote, Carcarreko men-

dixkaren gainera, Erribera osoa bis-
tan dutela.

Virgen de Gracia zahar-egoitzako langileak (Cárcar):

Mamen Urbiola (ELAko ordezkaria), Ana Esther Pardo, Joaquina Chalezquer, Ana María Sádaba, Inma Sola, Gracia Insausti, Gracia Ruiz, M^a Pilar Álvarez, Laura Alegría, Ondartxo Arrieta, Tania Calahorra, Adelaida Calahorra, Txus Ramírez, Araceli Reinares, Isabel Guerra, Alejandrina Langui, Carola Ágreda, Ana Ruiz eta M^a Gracia Pérez eta Teresa Sádaba aurrejubilatua.